

nikus
ker.

Musika, Irratia eta
Podcastak.

41. TXOSTENA · 2023KO MARTXOA



AURKIBIDEA

1. ZER DA IKUSIKER	2
2. OHAR METODOLOGIKOAK.....	3
3. EMAITZAK	4
3.1 MUSIKA.....	4
3.2 PODCASTAK.....	9
4. LABURREAN.....	13

Nola aipatu: *Ikusiker (2023): Muiska, irratia eta podcastak. UPV/EHU. www.ikusiker.eus*

Egileak: Edorta Arana, Bea Narbaiza, Garazi Sanchez, Itziar Zorita, Blanca

Miguellez eta Maialen Goirizelaia.

1. IKUSIKER

Euskal Herriko gazteek dauzkaten ikus-entzunezkoen kontsumoak eta Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) erabilerak aztertzen ditu IKUSIKER ikerketak (Applika+ izeneko proiektua: US22/23).

Ikerketa burutzeko, Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleez osatutako bi panel daude martxan eta aldiro-aldiro inkestak luzatzen zaizkie, 12-23 urte bitarteko gazte hauek dituzten portaerak ezagutzeko.

Egitasmo hau, 2018-2019 ikasturtetik aurrera UPV/EHUko NOR taldeak, EITBk, Kulturaren Euskal Behatokiak, Tabakalerak eta Euskararen Erakunde Publikoak burutzen dute, tokian tokiko ikasketa-zentroekin elkarlanean.



UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa (Bizkaia)

+34 747 414 355

ikusiker@ehu.eus

2. OHAR METODOLOGIKOAK

Ikerketa burutzeko, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) bi mila ikasletik gorako panela osatu da. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak (www.encuestafacil.com plataforma erabiliz), beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen erabilerei buruzkoak. Landa-lana eta datuen kudeaketa egiteko Aztiker Soziologia Ikerlanean laguntza jaso dugu.

Txosten honetan aurkitu daitezke 2023ko martxoaren 6tik 13ra bitartean, musika, irratia eta podcastei buruz eginiko inkestaren emaitzak. Guztira, 18 eta 23 urte bitarteko 1772 ikasleen erantzun baliagarri jaso dira.

Dokumentuaren hasieran, sare sozial desberdinen pisua zenbatekoa den zehazten da eta gero, musika, irratia eta podcasten gaineko galderen emaitzak eskaintzen dira: irismena, koneksioa maiztasuna, erabilera desberdinak, jarraitzen diren perfilak eta balorazio orokorra, besteak beste.

3. EMAITZAK

3.1 MUSIKA


Inkesta honetan musika entzuteko ohiturei buruz galdetu da. Hasteko, erantzuleen herena baino gehiagok adierazten du musika etxean entzuten duela gehienbat (%37,6k), edota bestela garraio publikoan (%34,2k), kalean (%13,6k) edo kotxean (%8,8k). Tabernak eta diskotekak dira aukera guztietan ehuneko txikiena ateratzen dutenak, %0,5 hain justu. Beste leku batzuk dituzte burutan ikasleen %4,4k eta %0,9k dio ez duela musika entzuten.

Aurreko urteko erantzunekin alderatzen bada, musika etxean entzuten dutenak jaitsi dira eta garraio publikoan entzuten dutenak igo. Beste eremuak berdin mantendu dira ehunekoetan.

1. Irudia – Musika non entzuten duzu gehienbat?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Etxean (zure etxean ala beste batenean)	664	37,6
Garraio publikoan	605	34,2
Kalean	241	13,6
Kotxean	155	8,8
Kafetegian / Tabernan / Diskotekan	9	0,5
Beste leku batean	77	4,4
Ez dut musika entzuten	16	0,9
Guztira	1.767	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Musika entzuteko zein aparatu erabiltzen duten galdetuta, ikasleen ia hamarretik bederatzik adierazi du (%87,6) mugikorra erabiltzen duela. Bestalde, ordenagailua erabiltzen dutenak %6,7 dira eta irrati aparatua erabiltzen dutenak (etxekoa zein kotxekoa) %2,7.

2. Irudia – Zein aparatu erabiltzen duzu musika entzuteko?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Mugikorra	1.546	87,6
Ordenagailua	119	6,7
Irrati aparatua (etxekoa edo kotxekoa)	47	2,7
Tableta	18	1,0
Telebista	2	0,1
Beste aparatu batean	18	1,0
Ez dut musika entzuten	14	0,8
Guztira	1.764	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Musika entzuten pasatzen duten denborari buruz galdetuta, orokorrean telebista ikusten pasatzen dutena baino denbora gehiago da. Panelisten %5,1ek egunean 20 minutu baino gutxiago pasatzen dute musika entzuten. Beste %16,7k 20-39 minutu artean egunean. Ordubetik gora pasatzen dutenak inkestaturen ia bi heren dira (%64,5). Batez beste egunean musika entzuten 81,9 minutu pasatzen dute panelistek, ia ordu eta erdi.

3. Irudia – Egun normal batean, musika entzuten zenbat denbora egoten zara?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
20 minutu baino gutxiago	90	5,1
20-39 minutu artean	292	16,7
40-59 minutu artean	240	13,7
Ordubete - ordu eta erdi artean	432	24,6
Ordu eta erdi - bi ordu artean	366	20,9
Bi ordu baino gehiago	333	19,0
Guztira	1.753	100,0
Batezbestekoa		81,9

Iturria: Ikusiker, Applika+




Interneten bidez musika entzuteko zein plataforma erabiltzen duten galdetuta, ia guztiak aipatu dute Spotify bere lehenengo hiru aukeren artean (%87,4k), eta ia erdiek Youtube (%46,9k). Beste plataformak oso gutxi aipatzen dira, %4aren azpitik.

4. Irudia – Interneten musika entzuteko plataforma

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Spotify	1.542	87,4
Youtube	828	46,9
SoundCloud	58	3,3
iTunes	24	1,4
Deezer	11	0,6
BandCamp	6	0,3
Badok	4	0,2
Beste	54	3,1
Ez dut musikarik entzuten internet bidez	33	1,9
Guztira	1.765	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Musika entzuteko erabiltzen diren ohiko irrastien kasuan, aipatzekoa da ia herenak adierazten duela ez duela musikarik entzuten irrati bidez (%32,2k). Irrati aipatuena Los40 da, %44,3k aukeratua. Ondoren dator Gaztea Irratia, %27,2k aukeratu baitu. Segidan Cadena 100 dago, erantzuleen %20,0k aukeraturata, eta hamarrena gainditzen duen azkena Europa FM da, %12,2k aipatuta.

5. Irudia – Irratian musika entzuteko emisora

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Los40	742	44,3
Gaztea	456	27,2
Cadena 100	334	20,0
Europa FM	204	12,2
Kiss FM	133	7,9
Rock FM	133	7,9
Cadena Dial	48	2,9
Euskadi Irratia	37	2,2
EiTB Musika	29	1,7
M80	9	0,5
Euskal Kantak EiTB	9	0,5
Cadena SER	8	0,5
Radio Euskadi	4	0,2
Beste	62	3,7
Ez dut musikarik entzuten irratitik	539	32,2
Guztira	1.674	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Gehien entzuten diren musika generoen artean hiru nabarmentzen dira bereziki: popa (%52,8k aipatua), reggaetoi-a (%52,2k aukeratua) eta pop/rock-a (%43,1ek aipatua). Ondoren, nahikotxo distantziara, rapa eta trapa daude (%21,6k eta %14,4k aipatua), eta segidan musika elektronikoa eta hip hop-a (%11,6k eta %9,1ek esanak).

6. Irudia – Zein musika mota entzuten duzu?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Pop-a	928	52,8
Reggaetoi-a	917	52,2
Pop/rock-a	758	43,1
Rap-a	380	21,6
Trap-a	253	14,4
Elektronikoa	204	11,6
Hip hop-a	160	9,1
Heavy metal-a	95	5,4
Soinu latinoak (salsa, kunbia, batxata...)	93	5,3
Musika klasikoa	82	4,7
R&B-a	81	4,6
Kpop-a	56	3,2
Jazz-a	46	2,6
Blues-a	26	1,5
Beste	199	11,3
Ez dut muskarik entzuten	24	1,4
Guztira	1.758	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




3.2 PODCASTAK

Amaitzeko, podcastei buruzko galdera batzuk egin dira. Erantzun dutenen hamarretik seik, %59,9k, noizean behin behintzat, entzuten dituzte podcastak (%8,5ek askotan, %10,3k batzuetan eta %41,1ek noizean behin). Beste aldean kokatzen dira inoiz entzuten ez dituztenak, ikasleen %40,1.

7. Irudia – Entzuten dituzu podcastak, zenbatero?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Ez ditut inoiz entzuten podcastak	710	40,1
Noizean behin	728	41,1
Nahikotan entzuten ditut	183	10,3
Askotan	151	8,5
Guztira	1.772	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Gairik gustukoenetan, nabarmen, “elkarrizketak” gailentzen dira, %45,9k aukeratu baititu. Segidan, %11,5ek aipatua, “komedia, memeak eta parodiak” daude, eta hirugarren lekuan “youtuberrak, gamerrak eta vloggerrak” (%7,7k aipatua).

8. Irudia – Zein da zuretzat gairik gustukoena?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Elkarrizketak	482	45,9
Komedia, memeak eta parodiak	121	11,5
Youtuberrak, gamerrak eta vlogerrak	81	7,7
Albisteak eta politika	72	6,9
Kirola	67	6,4
Makilajea eta moda	36	3,4
Musika	21	2,0
Audio fikzioa	14	1,3
Ariketa fisikoa (cardio, fitness, yoga...)	6	0,6
Beste bat	150	14,3
Guztira	1.050	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Podcastak zein helbururekin entzuten dituzten galdetuta, ikasleek gehien aipatu dutena “entretenezko” izan da (%47,9k askotan egiten du horretarako eta %28,0k nahikotan). Bigarren helburu nagusia “aldi berean beste gauza batzuk egiteko” izan da (%31,1ek askotan eta %28,5ek nahikotan). Ondoren agertzen dira bestelako helburuak, ehuneko altuenetik baxuenera ordenatuta: gauza berriak ikasteko, aktualitateko kontuen berri izateko, erlaxatzeko edota bakarrik ez sentitzeko (azken aspektu hau askotan edo nahikotan egiten duela aipatu du ikasleen %12,6k).

9. Irudia – Zertarako entzuten dituzu podcastak?

	Inoiz ez (%)	Noizean behin (%)	Nahikotan (%)	Askotan (%)	Guztira (%)
Entretentzeko	1,5	22,5	28,0	47,9	100,0
Aldi berean beste gauza batzuk egiteko	14,2	26,2	28,5	31,1	100,0
Gauza berriak ikasteko	7,2	35,6	31,8	25,4	100,0
Aktualitateko kontuen berri edukitzeko	20,4	40,4	25,2	14,0	100,0
Erlaxatzeko	27,7	33,8	22,5	16,0	100,0
Bakarrik ez sentitzeko	62,2	25,1	7,1	5,5	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Podcastak entzuteko erabili ohi diren gailuetan ere oso joera markatuak daude: ikasleen hiru laurdenean, %76,4k, telefono mugikorra erabili ohi du, eta %12,9k ordenagailu eramangarria. Bestelako aukeren artean %10,7 kokatzen da.

10. Irudia - Zein da gehien erabiltzen duzun gailua podcastak entzuteko?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Telefono mugikorra	806	76,4
Ordenagailu eramangarria	136	12,9
Mahaiko ordenagailua	51	4,8
Tableta	45	4,3
Telebista pantaila	13	1,2
Bideo-kontsola	1	0,1
Bestelakoa	3	0,3
Guztira	1.055	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+



Amaitzeko, podcastak zein neurritan dituzten gustuko galdetu zaie, 0 eta 10 bitarteko eskala batean. Batez beste 7,1eko puntuazioa eman zaie; puntuazio zehatzei dagokienez, inkestatuen %50,6k 8 edo 7 puntuazioak aukeratu ditu.

11.Irudia – Zenbateraino duzu gustuko podcastak entzutea?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
10	92	9,0
9	131	12,8
8	285	27,9
7	232	22,7
6	88	8,6
5	92	9,0
4	27	2,6
3	31	3,0
2	17	1,7
1	14	1,4
0	12	1,2
Guztira	1.021	100,0
Batezbestekoa	7,1	

Iturria: Ikusiker, Applika+



4. LABURREAN

-Panelisten %37,6k adierazten du musika etxean entzuten duela gehienbat, eta %34,2k garraio publikoan.

Musika entzuteko zein aparatu erabiltzen duten galdetuta, ikasleen ia hamarretik bederatzik adierazi du (%87,6) mugikorra erabiltzen duela.

- Panelisten %5,1ek egunean 20 minutu baino gutxiago pasatzen dute musika entzuten.

-Interneten bidez musika entzuteko zein plataforma erabiltzen duten galdetuta, ia guztiek aipatu dute Spotify bere lehenengo hiru aukeren artean (%87,4k).

-Musika entzuteko erabiltzen diren ohiko irrastien kasuan, panelisten herenak ez du musikarik entzuten irrati bidez (%32,2k). Irrati aipatuena Los40 da, %44,3k aukeratua.

-Ikasleen %59,9k, noizean behin behintzat, entzuten dituzte podcastak (%8,5ek askotan, %10,3k batzuetan eta %41,1ek noizean behin).

-Podcastak entzuneko gairik gustukoenetan, nabarmen, “elkarrizketak” gailentzen dira, (%45,9)

-Podcastak zein helbururekin entzuten dituzten galdetuta, ikasleek gehien aipatu dutena “entretentzeko” izan da (%47,9k askotan egiten du horretarako eta %28,0k nahikotan).

-Batez beste 7,1eko puntuazioa eman zaie podcastei.